

**“Herri diferentea aurkitu dut,  
jendea ere oso diferentea. Gauza  
ezezagunak dira niretzat”**



41 urteko erbestealdiaren ostean, lurretara itzuli da Joseba Sarrionandia. Diskrezioz bueltatu gura zuen, ez hedabideetan ez beste inon agertu barik. Baina, albistea bolo-bolo zabaldu da. Herria eta etxeokak bisitatzearen sentsaioez berba egin du ANBOTOgaz. Lau hamarkada baino gehiagoren ostean, sorlekura itzuli da idazlea. • 3



## Baheketa bat egiteko eskatu dute Otxandion

**OTXANDIO** • Azken astean COVID-19 kasu positiboek nabarmen gora egin dute Otxandion: 39 kasu apirilaren 14tik hona. Egoera horren aurrean, "Otxandion baheketa masiboa egiteko aukera sakon aztertze" eskatu dio Otxandionko Udalak Osasun Sailari. Azken egunetan hiru bider errepikatu du netan eskaera da. • 10

## Kalean da Basket Beats Borders elkartasun bilduma

**Berriz** • Shatilako errefuxiatu kanpalekuko emakumeei babesa emateko asmoz, 53 musikaririk bat egin dute eta Basket Beats Borders elkartasun bilduma kaleratu dute. Durangaldeko hainbat herritan eskuragarri dago bilduma: Berrizen, Zaldibarren, Abadiñon eta Elorrión, besteak beste. Basket Beats Borders ekimenak Beiruteko Shatilako errefuxiatuen kanpamentuan du sorburua, 2017an. Ekimenaren bultzatzaile Oihana Alberdi berriztarrak azaldu duenez, proiektuaren asmoa kirolaren bitartez emakumeei berba ematea da. • 8





**Roberto Martínez Almazán**

SFC-SQM  
Euskadi Aesec elkarte

DURANGO | 1973

## “5G teknologia atzeratzea eskatzen dugu, kaltegarria ez dela dioten ikerketa independente gehiago egon arte”

SFC-SQM Euskadi Aesec elkarteak 5G teknologiaren instalazioa atzeratzea eskatu du, ikerketa independente gehiago egon arte

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

"Hara! Ni etxetik berbetan ari nartzazu, ordenagailu bidez. Eta ez nabil wifik erabiltzen, zuntz optikoa baino. Ikusten? Komunikazioa eta teknologia berriak eraginkorrak dira horrela ere!", dio Roberto Martínezek. SFC-SQM Euskadi Aesec elkartearen presidentea da eta fibromialgia edo neke kronikoa sufritzen duten herritarrek babesteko lan egiten du. Baita gai kimikoekiko eta eremu elektromagnetikoekiko sentikorrek direnentzat ere. Azken hauek direla-eta, 5G teknologiaren instalazioa atzeratzea eskatu dute, teknologia kaltegarria ez dela dioten ikerketa independente gehiago egon arte.

**Durangoko udalbatzak 5G teknologiaren instalazioa atzeratzea eskatu zuen otsailan, zuen elkarrekin hala eskatuta. Zerk bultzatuta aurkeztu zuten mozioa?**

Arrazoi nagusia da gure elkarrean sentikortasun elektromagnetikoa duen hainbat lagun dagoela. Euretari bat, esate baterako, nire emaztea da. Kolektibo hori babestu gura dugu. Gure ustea da frekuentzia altuko

eremu elektromagnetikoak arriskutsuak direla gizakiarentzat eta naturarentzat. Hori diote gaur arte instalatu diren teknologiei buruzko ebidentzia zientifikoek, 4G-ri eta wifitari buruzkoek. Munduko Osasun Erakundeak, adibidez, minbizi eragiletzat jotzen ditu eremu elektromagnetiko horiek. Hori dela-eta, 5G teknologia atzeratzea eskatzen dugu, kaltegarria ez dela ondorioztatzen duten ikerketa independente gehiago egon arte.

**Adibide praktikoak ipintzearen: eremu elektromagnetikoekiko sentikortasuna duenak zein sintoma sufritzen ditu?**

Estimazioen arabera, Europako biztanleen %3-5 inguru sentibera dira eremu elektromagnetikoekiko. Horrek esan gura du 13 milioi europarri eragiten diela. Dena dela, ez dago kopuru ofizialik. Estimazioak baino ez dira. Baina kontua da denok ditugula sintomak, nahiz eta bakoitzari modu desberdinean eragiten dion. Zuk buruko mina sentitu dezakezu ordenagailuaren aurrean denbora askoan egon eta gero. Gure elkartearen kideei, oster, beste

era batera eragiten die. Horixe da nire emaztearen kasua. Eremu elektromagnetikoagaz kontaktuan egonda, sudurra odoletan

**Estimazioen arabera, Europako biztanleen %3-5 inguru sentibera dira eremu elektromagnetiko horiekin, 13 milioi pertsona inguru**

hasi dakiok. Besoetan indarra galdu dezake, eta hanketan. Dena lausotuta ikusi dezake eta ohetik altxatu ezinda eman dezake bolada bat. Momenturen batean, berba egiteko gaitasuna ere galdu dezake. Horiek guztiak sintoma fisikoak dira, agerikoak. Baina, gero, ikusten ez diren sintomak daude, sistema immunologikoari eragin diezaioketenak, eta, horrenbestez, larriagoak.

**Ikerketa batzuek diote 5G teknologia ez dela kaltegarria. Beste batzuek, oster, baietz diote.**

Biokimikan aditua den Washingtongo Unibertsitateko ikerlari batek hainbat kalte eragin dezakeela ondorioztatu du. Nerbio sistemari erasotzen diola, sistema endokrinoa kaltetzen duela, gure zeluletako DNARI eraso egiten diola, edo ugalkortasuna gutxitzen duela. Italiako beste ikerlari batek ere antzekoa dio. 2005etik dabil gaia arratoiekin ikertzen, eta tumore kopurua areagotzen dela ondorioztatu du. Eta kaltegarria ez dela dioten ikerketek zer dioten? Bada, hori. Ez dela ezer gertatzen edo ezin dela behin betiko ondorioz atera. Daukagun arazorik handiena da behin teknologia ezarrita gatx dela eremu elektromagnetikoetatik ihes egitea. Tabakoa dagoen gune batetik irten zaitezke. Kalera joan zaitezke. Baina eremu elektromagnetikotik ezin duzu hain erraz ihes egin. Zure inguruan dago.

**Nork finantzatzen ditu ikerketak?**

Espainiako estatuan CCARS erakundeak dago, Osasunerako eta Irratirekuentziarako Aholkularitza eta Zientzia Komitea. Erakunde honek kaleratu izan ditu ikerketak, baina ez da erakunde

ofiziala. Telekomunikazioen arloko Ingeniarien Eskolari lotutako erakunde da. Eta, hori horrela, inpartzialtasuna kolokan dagoela esango nuke, bere helburuen artean ez dagoelako osasuna. Inpartzialtasun hori mahai gainean ipini beharra dago. Beste herrialde batzuetan, ikerketak telefonia enpresek ordaintzen dituzte.

**Udalek eskuak lotuta dituzte gobernuko dekretuen aurrean, baina ingurumen kalitatearen arduradunak dira**

**Udalek, tokian tokiko instituzioek, zein eskuduntza dute 5G teknologia instalatu edo arautzeari dagokionez?**

Udalek eskuak lotuta dituzte Espainiako gobernuak araututako dekretuen aurrean. Baina udalak herri bakoitzeko ingurumen kalitatearen arduradunak dira. Lantokien kutsaduraren arduradunak dira, eta legeak eremu elektromagnetikoen arduradun ere badirela jasotzen du. Gauzak egin daitezke. Eta udal batzuek egin dituzte. Baina borrokatu egin behar da. Debekatu, ezingo dute debekatu, baina erregulatu bai. 5G teknologia instalatuko balitz, gutxienez, erregulatu gura nuke. Frekuentzia mailak, antena kopurua, eta abar. 5G teknologiagaz egin daitezkeen guztia zuntzagaz egin daiteke. Eta ez da eremu elektromagnetikorik sortzen.

**Gizartea digitalizazioaren hazkunde baterantz doala dirudi. Big Data badatorrela ematen du. Ba al dago gatazkarik zuen eskarien eta gizarte eskarien artean?**

Big Data arazorik barik egin daitezke zuntz optikoagaz. Beste kontu bat da garbigailu baten informazioa beste norabait eramanez gura badugu. Hor zuntza ez da baliagarria. Baina galdetu beharrezkoa hori da, hain zuzen ere: beharrezkoa da garbigailu baten informazioa Washingtonen dagoen zerbitzari batera eramatea? Zertarako? Ni ingeniaria naiz eta guztiz ados nago digitalizazioagaz, baina iruditzen zait badagoela gauzak egiteko beste modu bat. Bestetik, kontuan hartu behar dugu negutegi efektua eragiten duten gas emisioen %14 informazio sistemak eragindakoa izango dela 2040rako. Hori diote ikerketa batzuek. Beraz, digitalizazioari bai, baina buruagaz. Inportantea da, baina bateragarri egin behar da.

# “Herri diferentea aurkitu dut, jendea ere oso diferentea. Gauza ezezagunak dira niretzat”

Lau hamarkadaren ondoren, Joseba Sarrionandia Durangaldera bueltatu da. Iurretako plazan batu da ANBOTogaz, herria eta etxeok bisitatzearen sentsazioez berba egiteko. Aldatuta ikusi du bere jaioterria eta eskualdea



**Joseba Sarrionandia  
Uribelarrea**

**Idazlea**

**IURRETA | 1958**

deen indarraren eta logikaren kontra.

**Zure figura misterioz inguratuta egon da beti. Mito bat batzuentzat. Zuk hori zelan bizi izan duzu?**

Ezagutzen dudan pertsonarik normalena naiz. Besteak dira apur bat arraroak, ez?

**Pandemia egoera honetan, ekitaldi herrikoiaz libratu zara. Iurretako dantzarien emanaldi bat, plaza bete jende eta horrelakoak.**

Eskerrak!

**Hainbeste urte pasatu eta gero, zeozeren edo norbaiten falta igarri duzu?**

Aita ez dut aurkitu, orain urte batzuk hil zen, hogeita hamapiku urtetan ikusi barik. Jende asko falta da, familiakoak, nire lagun batzuk heroinaren sasoian desagertu ziren, beste batzuk istriputan edo gaixorik. Denoi pasatzen zaigu. Denborak pertsona asko jaten du. Apur bat arraroa da sobrebibiente sentsazio hau.

**“Denborak pertsona asko jaten du. Apur bat arraroa da sobrebibiente sentsazio hau”**

**Zer leku bisitatu dituzu? Ibaizabaleko ur uherrak hor jarraitzen du?**

Goiuria, Garaizar, Barrenkale, Artekale, Goienkale eta beste batzuk. Nire abesti horregaz ez dakit zer pasatuko den, zubieta-ko barandatik behera begiratuta, ura garbia ikusten da. Ahateak ere ikusten dira ur bazterrean. Orain berrogei urteko erreka ura ondo uherra izaten zen, fabrika askotako herdoil eta aparrekin. Baina, ideia da sorlekuko ibaiko ura zainetan eramaten dugula, zikina zein garbia izan.

**“Antzina ehun urtean aldatzen ziren gauzak, gure belaunaldian hamar urtean”**

**IURRETA • JONE GUENETXEA**

**41 urteko erbestaldiaren ondoren, Joseba Sarrionandia Iurretara bueltatu da. Diskrezioz bueltatu gura zuen, hedabideetan eta halakoetan agertu barik. Baina albisteak bolo-bolo zabaldu da eta ANBOTogaz batu da. Sare sozialen eta mugikorren sasoian, 'Sarri' oharkabean pasatzea ezinezkoa da, maskara ipinita izan arren. Idazle iurretarra bere sorlekura itzuli da. Gertu eta urrun ibili da**

**beti, bere sorterrira nekez uzten baitu sustraiak han dituenak.**

**Inoiz imajinatuko zenuen itzulera zelakoa izango zen. Zelakoa izan da?**

Ba, bidaia normala, hegazkinean, Loiuko aireportura. Madriletik Bilbora alboko aulkian andra bat. Hola irakurtzen, denak nasubukoagaz.

**Imajinatzen zenuen modukoa izan da itzulera?**

Pandemia egoera hau ez dut uste inork imajina zezakeenik orain urte bi. Egoera hori oso arraroa da mundu guztiarentzat. Bestela, oso ondo, familia eta lagunak ikusi eta gustura.

**Zer aurkitu duzu Durangalde inguruan?**

Herri diferentea, plano baten bila nabil (barrez). Jendea ere oso diferentea, ikusten denez, baina ezin dut esplikazio berezirik eman. Gauza ezezagunak dira niretzat.

**Hedabideen gaiak zalantzak sortu dizkizu? Zelan kudeatu edo?**

Nik literatura idatzi izan dut gela txoko batean, nahi nuke jendeak leitzea eta zeozelango debateren batean parte hartzea konpartitzen dugun linguajeari eta munduari buruz. Medioak beste gauza batzuetarako dade, botere harremanak ziurtatzeko edo espektakulu batzuk elikatzeke. Literatura kritikoak ez du zeregin handirik hedabi-

**Iurretara desanexionatu batera bueltatu zara.**

Iurretara Durango zen sasoikoa naiz. Ez nuen Ertzaintza ezagutzen, ETB ere ez dut sekula zuzenean ikusi, harrিতuta nago hainbeste errotondagaz... Oso diferentea da dena. Antzina ehun urtean aldatzen ziren gauzak, gure belaunaldian hamar urtean. Eta ea ikusten dugun datorrena, munduko bizimodua abiadura handian doa.

# Ikus-entzunezko lan bat egingo dute industrializazio sasoian Durangora bizitzera etorri zirenen ekarpena jasotzeko

Udalak beka bat kaleratu du 50eko, 60ko eta 70eko hamarkadetan Espainiako Autonomia Erkidegoetatik herrira bizitzera etorritakoen ekarpena aztertzeko

**DURANGO • EKAITZ HERRERA**

Durangoko Udalak beka bat kaleratu du joan den mendean bertara bizitzera etorritako herritarren ekarpen kultural, ekonomiko eta sozialak jaso eta ikus-entzunezko lan batean batzeko. Egitasmoaren aurkezpena asteon egin dute, Bizenta Mogel bibliotekan, eta bertan izan dira Juanan Bueno eta Mikel Uriguena zinegotziak, Verónica Redondo udal teknikariagaz. Juanan Bueno EH Bilduko zinegotziaren esanetan, udalak "elkarbizitzarako pauso berri bat" eman gura du ikerlanagaz. "Espainiako hainbat tokitatik 50eko, 60ko edo 70eko hamarkadetan etorritako herritarren ekarpenaren garrantzia nabarmendu gura dugu. Durango hobe bat sortu zuten eta udalak ahotsa eman gura die: zein ekarpen egin zuten, hona etorrita zein bizimodu utzi zuten atzean, zer gertatu zen familiekin, ohiturekin eta abar", esan du.

Mikel Uriguena Elkarrekin Podemos Herriaren Eskubidea taldeko zinegotziak azpimarratu du beka "herriko historiaren zati inportante



Verónica Redondo udal teknikaria, Juanan Bueno zinegotzia eta Mikel Uriguena zinegotzia.

bat hobeto ezagutzen" lagunduko duela. "Hona etorri zirenen guztiek Durango aldatu zuten eta aldaketa haren kausak eta nolakotasunak zeintzuk ziren ikertu gura dugu", gaineratu du. Aldaketa haren datu-rik esanguratsuena biztanleriaren gorakadak markatu zuela nabarmendu du Uriguena: "1950ean,

Durangok 9.000 biztanle zituen, eta handik 30 urtera, 1979an, hiru bider gehiago: 27.000". Prozesu migratorio hura bizi izan zutenen lekukotasunak hartuko dituzte elkarrizketetan, gero, istorio globala osatzeko. "Zeintzuk izan ziren ezaugarri migratorioak? Zeintzuk harreraren topatutakoak? Zein integrazioerako

erabilitako estrategia?", galdetu du Verónica Redondok. Bada, era horretakoak aletu gura dituzte ikus-entzunezkoan.

**Bekaren oinarriak**

Redondok bekaren xehetasunak eman ditu. Onuradunak 12.000 euroko aurrekontua eta 9 hila-

beteko epea izango du ikus-entzunezkoa aurkezteko. "Bekaren onuraduna herritar gazte bat izatea gura dugu, Ikus-Entzunezko Graduko ikasketen azken

**"Durangok 9.000 biztanle zituen 1950ean, eta 27.000 1979an, hiru bider gehiago"**

urtea egiten dabilen norbait. Edo ikasketak, gehienez ere, orain 6 urte amaitu zituen baten bat". Edozelan ere, beka eskuratu ahal izateko oinarri guztiak udalaren web orrian kontsultatu daitezkeela adierazi du Redondok. Maiatzaren 17ra arte aurkeztu ahal dira hautagaitzak. Handik aurrera, onuraduna zein den jakinaraziko dute, eta bederatziz hilabeteko epea egongo da ikus-entzunezkoa entregatzeko. Udalak beharrezko laguntza emango duela esan du.

## Durangoko martxanterak omendu dituzte Boni Macarronen horma irudia ipinita

**DURANGO • JONE GUENETXEA**

Joan zen domekan, Durangoko Udalak martxanterak omendu zituen Andra Marian. Ekitaldi hunkigarria egin zuten Boni Macarronen horma irudia ipinita. Durangarraren senitartekoak ere bertan izan ziren. "Niretzat martxanterak emakume langileen adibide izan dira beti", azaldu du Ima Garrastatxu alkateak. "Denok dakigu Bonik eta gainerako martxanterek gure bizitzetan suposatu zuten", azaldu du Julian Ríos alkateordeak umetako oroitzapenak gogora ekarrita.



Durangoko Udaleko ordezkariak eta Boni Macarronen senitartekoak.

## 'Escape room' bat Durangoko merkataritza sustatzeko

Dendak Bai merkataritza elkarteak eta Durangoko Udalak 'scape the herria' antolatu dute asteburu honetarako

**DURANGO • MAIALEN ZUAZUBISKAR**

'Googaz 3.0' egitasmoak, Dendak Bai merkataritza elkarteak eta Durangoko Udalak 'scape the herria' antolatu dute astebururako. Hau da, herriko merkataritza gazteen artean sustatzen lagunduko duen ihes gela antzeko bat.

Dendak Bai-k azaldu duenez, jokoak Durangoko kaleetan egingo da eta 18tik 30 urtera bitarteko gazte taldeek parte hartuko dute.

Jokoan zehar merkataritzaren sektorea bultzatzeko irtebide berritzaileak planteatu eta proposatu beharko dituzte.

Jokoak irabazten duen taldea Bizkaiko Koparako sailkatuko da, eta Bizkaiko zenbait herritako taldeen aurka lehiatuko da. Antolatzaileek azaldu dutenez, probintzia bakoitzeko talde irabazleek Europatik zehar 10-15 egunean bidaiatuko dute, uztailean.

**anboto**

Bixente Kapanaga, 9  
48215 Iurreta - Bizkaia  
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523  
Publizitatea: 946 217 902  
publi@anboto.org

2021eko apirilaren 23a  
19. urtea - 846. alea

Lege gordailua:  
BI-2268/01  
ISSN:  
1578-7028  
Tirada:  
12.000 ale



**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrinda.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazio burua:** Itziar Belar Zubizarreta.  
**Administrazioa:** Miren Abasolo Txabari.  
**Publizitatea:** Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Ainhoa Iraola Mazorriaga.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.

LAGUNTZAILEAK

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



**EUSKO JAURLARITZA**

**GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# Amorebietak, Betigolek eta Ikas-Txikik euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoa abiatu dute

Zornotzako futbol elkarteek kirolean euskararen presentzia areagotzeko konpromisoa hartu dute. Metodologia zehatz bat ipini zuten martxan eta dagoeneko hainbat emaitza lortu du. Zornotzako Udalaren laguntzagaz dabilta ekimena garatzen

## ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Sociedad Deportiva Amorebietak, CD Betigolek eta Ikas-Txiki futbol eskolak euskararen erabilera areagotzeko neurriak hartu dituzte. Egitasmoa Zornotzako Udalaren laguntzagaz dabilta garatzen, Aktibatu! izeneko programaren barruan.

Zornotzako futbol elkarteek berbetatik ekintzetara pasatzea erabaki dute. Kirolean euskararen presentzia areagotzeko konpromisoa hartu dute, eta hainbat neurri ipini dute martxan hori egia bihurtu dadin.

CD Betigolek jokalarien artean euskararen erabilera indartzeko erronka hartu zuen bere gain. Horretarako, metodologia zehatz bat ipini zuen martxan, eta dagoeneko hainbat emaitza lortu du. Jokalari batzuen artean hizkuntza ohiturak aldatzen hasia lortu dute.

Sociedad Deportiva Amorebietak dokumentu batean batu ditu euskararen presentzia sen-

dotzeko helburuak. Irudi korporatiboan lehenetsuna eman diote euskarari eta konpromisoa hartu dute euskara izateko entrenamenduetako hizkuntza lehena. Era berean, bazkideekiko hartu-emanetan eta zuzendari-

tzako kideen artean ere lehenetsiko dute euskara.

Bestalde, Ikas-Txiki futbol eskolak dekalogo bat prestatu du guraso talde baten laguntzagaz. Dokumentu horren arabera, entrenatzaileen jarduna euskaraz

izango da, bai euren artean, bai jokalariekin eta bai gurasoekin, eta euskaraz jarduteak umeengan duen isla azpimarratzen du. Dekalogoaren aplikazioa errazteko, entrenatzaileei ordu biko ikastaroa eskainiko diete sarean.



Egitasmoan parte hartzen dabilta taldeetako ordezkariak eta udal arduradunak ekimenaren aurkezpenean.

## Garaiko Nagusiak elkarteak urtebete darama ekintzarik antolatu barik

### GARAI • JONE GUENETXEA


Garaiko Nagusiak elkarteak ezin izan du ekintzarik antolatu azken urten COVID-19a dela eta. San Anton inguruan, batzar nagusia egin zuten iaz, urtarrilean, baina harrezkero eten egin dituzte ekintzak. Bego Aldekoa elkarteak kideak dioenez, egiten zituzten ekitaldi nagusiak irteerak ziren. 30-40 bat lagun batzen ziren, irteera kulturalak eginez egun pasa joateko. Bide batez, bertan bazkaltzen zuten. "Momentu honetan mugikortasuna mugatuta dago, eta, gainera, taldeetan batu ezinenez, ez dugu ezer antolatzeko aukerarik izan. Gainera, jendea asko zaintzen dabil", esan du.

Hala ere, Durangaldeko Mankomunitatean Internet bidez antolatutako ikastaroetan parte hartzeko aukera izan dutela gogoratu du Aldekoa: "Nire kasuan, memoria lantzeko ikastaroa egin dut, telefonoz. Gero, ariketak bidaltzen zizkiguten gure kabuz etxean egiteko. Oso interesgarria iruditu zait".

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Tel.: 946 816 673  
[www.zarateyelexpe.com](http://www.zarateyelexpe.com)

## GARAJEA ETA TRASTELEKUA BARNE



Azkeneko  
etxebizitza



# Zea Mays, Zetak, Puro Relajo eta bertso saioa Abadiñoko Udaberriko egitarauan

Aurten San Prudentzio eta San Trokaz jaiak ospatuko ez direnez, Udaberriko egitaraua antolatu dute Abadiñon



Apirilaren 30ean Zea Mays taldeak kontzertua eskainiko du.

## ABADIÑO • E.H./M.Z.

Aurten San Prudentzio eta San Trokaz jaiak ospatuko ez direnez gero, Abadiñoko Udalak hainbat ekitaldi kultural antolatu du Abadiñoko Udaberriko egitarauaren barruan. Adin guztietarako herritarrentzat antolatu dituzte ekimenak. Kon-

tzertuak, familia ikuskizuna eta bertso saioa egongo dira, besteak beste.

Udaletik azaldu dutenez, ikuskizun batzuk Traña-Matienako eskoletan eta Errota Kultur Etxean izango dira, eta beste batzuk probalekuan.

## Ikuskizun guztietarako sarrerak alde aurretik hartzea ezinbestekoa dela esan dute udaletik

Ikuskizun guztietarako sarrera alde aurretik hartzea ezinbestekoa izango da. Gainera, ikuskizun batzuetarako sarrerak zozkatu egingo dira eskatzaileen artean. Horretarako, Errota Kultur Etxera edo Mediatekara jo beharko dela azaldu dute udaletik.

## EGITARAUA

### Apirilak 28:

- 12:00 Olivier Magoaren eta Liubaren ikuskizuna.
- 17:00 Xaiborren showa
- 18:00 Xaiborren showa

### Apirilak 29:

- 19:00 Bertso saioa

### Apirilak 30:

- 19:00 Zea Mays

### Maiatzak 1:

- 19:00 Puro Relajo

### Maiatzak 2:

- 12:00 'Pinocchio' antzezlan
- 17:00 'Pinocchio' antzezlan
- 18:00 Los 5 Bilbaños taldearen kontzertua

### Maiatzak 14:

- 19:00 Demode Quartet

### Maiatzak 15:

- 19:00 Zetak

### Maiatzak 16:

- 16:30 Ametsen urtebetetzea, ikuskizuna
- 18:30 Ametsen urtebetetzea, ikuskizuna

### Maiatzak 17:

- 12:00 Babo Royal ikuskizuna
- 17:00 Babo Royal ikuskizuna

## 1937ko apirilean Santamañezarren hildakoak gogoratuko dituzte

Castet elkarteak hainbat ekitaldi antolatu du goizean XXIX. Castet eguna ospatzeko

## ZALDIBAR • A.M.

Domekan, hilak 25, hainbat ekitaldi egingo dute Zaldibarran, "Euskal Herriaren eta askatasunaren alde jausitakoei" gorazarre egiteko. Iaz, itxialdia zela-eta beste modu batera gogoratu behar izan zituzten 1937ko apirilaren 25ean Santamañezarren hildakoak. Aurten, ostera, osasun neurriak kontuan hartuta, ohikoagoa den formatura itzuli dira antolatzaileak. 11:30ean argazkia aterako dute Santamañezarren, tontorrean. Ostean, 12:30ean, lore eskaintza egingo dute udaletxeko plazan. Kalejira bat egingo dute gero, Castet elkartera, eta han ekitaldia egingo dute eguna borobiltzeko.



Artxiboko irudia.

## Afrikako koloreak erakusten dituen argazki bilduma

Itziar Irazabal iurretarrak 'Afrika ez da beltza, mila kolore ditu' argazki erakusketa ipini du Oreka tabernan

## IURRETA • AITZIBER BASAURI

Afrika ez da beltza, mila kolore ditu izenburuagaz, Itziar Irazabal iurretarrak argazki erakusketa ipini du herriko Oreka tabernan. Afrikan egon denean ateratako dozena bat argazkitik gora ipini ditu, hango herritarren egunerokoa erakusteko. Erakusketa

maiatzaren 9ra bitartean egongo da ikusgai.

Itziar Irazabalek Medicus Mundi gobernuz kanpoko erakundearen lan egiten du. Lehengoz, 1995. urtean joan zen kooperante, eta, ordutik hona, lankidetzara arloan dabil iurretarra.



Erakusketan batutako zenbait argazki.



# Ostalaritza gida

 **Durango**



**OIERDI**  
Herriko gudarien 8, DURANGO  
**Tel.: 946 129 824**  
Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.

 **Iurreta**



**GAUARGI**  
Dantzari Etxetaldea, IURRETA  
**Tel.: 944 356 674**  
·Gosariak, pintxoak, molleteteak, rabak, errazioak eta askotariko tortilak enkarguz,...

 **Durango**



**AI AMA**  
Joxe Miel barandiaran 2, behe, DURANGO  
**Tel.: 946 232 240**  
Gosaldu bazkaldu zein afaltzeko aukera. Gozo eta osasuntsu gainera!

 **Abadiño**




**ABARKETERUENA**  
Iturritxo, 6 - Txanporta plaza, ABADIÑO  
**Tel.: 944 657 790**  
Eguneko menuak eta asteburuetak menu bereziak. Goizetik pintxoak. Giro oso ona.

 **Durango**



**MIKELDI TABERNA**  
Kalebarria, 7 - DURANGO  
**Tel.: 944 073 988**  
Gosari eta pintxo aukera handia giro ezin hobean.



**Profesionalik onenak zure zerbitzura!**



## 53 musikari bat eginda, Shatilako errefuxiatu kanpalekuko emakumeei babesa emateko

Basket Beats Borders elkartasun bilduma eskuragarri dago Durangaldeko hainbat herritan



Basket Beats Borders taldeko emakumeak Berrizen.

**BERRIZ** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Basket Beats Borders ekimenak Beiruteko (Libano) Shatilako errefuxiatuen kanpamentuan du sorburua. Proiektua 2017an sortu zen, kanpamentuan zeuden jatorri ezberdinetako neska saskibaloia-  
ren inguruan batzeko. Ekimen horrek Euskal Herrian ere badu ordezkaritza, eta bertako bultzatzaile nagusietariko bat da Oihana Alberdi berriztarra. Proiektua sortu zenetik hainbat bider izan dira Euskal Herrian 'Real Palestine Youth' taldeko jokalaririk.

Pandemiak baldintzatuta, iaz saskibaloit taldeko jokalaririk ezin

izan ziren bertaratu, eta hauei elkartasuna helarazi eta laguntzen jarraitzeko asmoz, beste ekimen bat ipini zuten martxan: Basket Beats Borders elkartasun bilduma, bi CDz osatutako elkartasun bilduma.

Ekimen honetan 53 musika taldek parte hartu dute eta musikalki hainbat estilotako abestiak entzun daitezke: musika elektronikoa,

**Durangaldean Berrizen, Zaldibarren, Abadiñon eta Elorriko dago CDa eskuragai**

ska, rumba, rocka eta hardcorea. besteak beste. Oihana Alberdi berriztarrek azaldu duenez, proiektuaren asmoa hasierako bera da, kirolaren bitartez emakumei berba ematea.

**CDa erosteko aukera**

Dagoeneko eskuragarri dago Basket Beats Borders elkartasun bilduma. Alberdik jakinarazi duenez, Euskal Herriko hainbat txokotan dago eskuragai. Tartean, Berrizko Ganeketxe eta Topa tabernetan, Zaldibarko Sorginen, Abadiñoko Abarkateruenean eta Elorriko Parran.

## Lanean dabilta Atxondoko igerilekua prest egoteko udarako

Atxondoko Udala Apatamonasterioko igerilekua hobetzen dabil eta 80.000 euro ipini ditu lanetarako

**ATXONDO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Igerilekua udarako prest izateko asmoz, Atxondoko Udala lanak egiten dabil bertan. Udaletik azaldu dutenez, gaur egungo iragazkiaren ordez beste iragazki bi ipini dituzte. Igerilekuaren perimetroa hobetuko dute lehendik zegoen sareta-kanala ordezkatuta, eta zirkuitu berri bat instalatuko dute gainezka egiten duen ura batzeko sisteman, besteak beste.

"Azken urteetan, mantenu eskasa eta txarra egin da eta hainbat

**"Azken urteetan mantenu eskasa eta txarra egin da eta hainbat elementu aldatzea ekarri du"**

elementu aldatu beharra ekarri du horrek", azaldu du Xabier Azkarate alkateak. Bestalde, "udarako prest" egoteko lan egingo dutela adierazi du.

Atxondoko Udalak 80.000 euroko aurrekontua ipini du lanak egiteko.



## Elorrioko gazte eta adinekoek euren bizipenak partekatzen dituzte belaunaldien arteko programari eskerrak

Udalak bultzatutako sormenerako Sormening programak Elorrioko gazte eta adinekoek elkar ezagutzea bultzatu gura du

**ELORRIO** • MAIALEN ZUAZUBISKAR

2016tik Elorrioko Udala lanean dabil Elorrioko gazte eta adinekoek elkar ezagutu dezaten bultzatzeko asmoz. Sormenerako Sormening guneari eskerrak lortzen dute hori. Gune horrek belaunaldien arteko proiektua du, eta herriko ikastetxeetako gazteen eta herriko elkarteetako adinekoen artean zubiak sortzea da horren helburua.

Gazteei dagokienez, batez ere DBH 3. mailako ikasleei bideratuta dago programa. Baina DBH 4. mailako ikasleek ere parte hartzeko aukera dute.

Pandemia dela-eta hainbat hilabetean programa etenda izan duten arren, urtariletik berriro ere martxan dabilta. Joan zen astean, esaterako, herriko 9 adin-

dun eta Elorrioko Institutuko 25 ikaslek herritik ibilaldi bat partekatu zuten.

"Bizipenak eta esperientziak partekatzeke, elkarregaz ikasteko eta elkar ezagutzeko modu

**Herriko ikastetxeetako gazteen eta Elorrioko adinekoen artean zubiak sortzen dabilta**

bat da. Helburua elkar elikatzea eta elkar indartzea da, adinekoen eta gazteen arteko zubi bat eta elkargune bat eraikitzea, hain zuzen ere", azaldu du Onditz Mendizabal Sormeningeko koordinatzaileak.



Joan zen astean ibilaldia egin zuten.

## Hemendik Harantz-ek deituta, esne bilketa Durangon, Elorriko eta Abadiñon

**DURANGALDEA** • M.ZUAZUBISKAR

Kara Tepen, Greziako Lesbos uharterako errefuxiatuen esparruan, janari banaketa osagarria egin ahal izateko, iraungitze data luzeko behi-esne osoa bilduko dute asteburuan. Abadiñon gaur egingo dute bilketa, Txanporta plazan, 17:00etatik 20:00etara bitartean. Durangon eta Elorriko apirilaren 24an egingo dute bilketa. Durangon, Andra Marin egongo dira esnea batzen, 10:00-16:00 bitartean. Elorriko 11:00etatik 14:30era bitartean egongo dira esnea hartzen, plazan.

Bilketa Zapareak-ek eta Durangaldeko Hemendik Harantz elkarteak bultzatu dute. Elkarretatik esan dutenez, bildutako esneagaz 7.200 lagunari oinarritzko elikagaiak helaraziko dizkiete.



EQA

# ETXEAN KARGATU NAHI DUTENENTZAT.

Zeure etorkizuna sortzeko unea heldu da. Ezagut ezazu **EQA** berria, %100 elektrikoa den Mercedes-Benz-en SUV konpaktua eta eraman ezazu **wallbox kargatzailea eta instalazioa dohainik**<sup>1</sup>. Gozatu etorkizuneko disenuaz zein teknologia onenaz zein hirian duen 494 km-rainoko autonomiaz nahi duzun tokira heltzeko. **Prest al zaude?**

Erreserbatu orain zure Test-Drive hemen:

**Aguinaga**



EQA 250: kontsumo elektrikoa (ziklo mistoa): 17,9-19,1 kWh/100 km.  
CO<sub>2</sub> isurtzea (ziklo mistoa): 0 g/km.

Guztira 399 – 424 km bitarteko autonomia  
(hirian 471-494 km bitarteko autonomia).

<sup>1</sup>Baliozko eskaintza 2021/06/30era arte. Informazio gehiago [www.mercedes-benz.es-en](http://www.mercedes-benz.es-en).

## Aguinaga

Mercedes-Benz kontzesionarioa

Retuerto Kalea, 38. 48903 BARAKALDO. Tel.: 94 497 00 74. Boroa Enpresa-Parkea 2A-3 Partz. 48340 ZORNOTZA. Tel.: 94 630

17 47. Botika Zaharra kalea, z/g. 48014 BILBAO (DEUSTU). Tel.: 94 447 08 40. Iparragirre etorbidea, 90. 48940 LEIOA. Tel.: 94 463 11 75.

[www.mercedes-benz-aguinaga.es](http://www.mercedes-benz-aguinaga.es)

# Unidad Alavesa taldearen eta Xabi Solanoren kontzertuak egongo dira Mañariko Aste Kulturalean

Aste Kulturaleko ekimen guztiek aforo mugatua izango dute eta aurretik izena eman beharko da parte hartzeko



Ataungo Unidad Alavesa folk-rock taldea disko berria prestatzen dabil.

## MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Maiatzaren 14tik 23ra, ekime-  
nez beterik dator Mañariko Aste  
Kulturala. Ekimen guztiek aforo  
mugatua izango dute. Ekimenetan  
parte hartu ahal izateko, aurretik  
izena eman behar da, maiatzaren  
7a orduko udaletxera deituta.

Ataungo Unidad Alavesa folk-  
rock taldearen kontzertuagaz ekin-  
go diote egitarauari, maiatzaren  
14an. 2016an sortutako taldeak  
disko bi kaleratu ditu orain arte eta  
*Made in Germany* izeneko hiruga-  
rrena prestatzen dabil. Kontzertu  
honetara joateko sarrerak agortuta  
daude.

Maiatzaren 15ean, Aritz Ganboa  
artzainaren erronka jasotzen duen  
Bideak dokumentala eskainiko du-  
te, liburutegi zaharrean. Ganboak  
iazko urrian egindako kirol erron-

ka bat bildu du filmean: bere arba-  
soen herriak, Arruazu eta Izaba,  
korrika lotu zituen mendiz, aldean  
Idiazabal gazta bat zeramala. Hel-  
burua landa eremuaren eta artzain-  
tzaren balioa azpimarratzea zen.

Maiatzaren 16an, Xabi Solano  
Maiza trikitilari hernaniarraren  
eta Kimua dantza-kolektiboaren  
musika-ikuskitzuna egongo da  
ikusgai plazan. Esne Beltza taldeko  
musikariak bakarka kaleratu duen  
Bi diskoko abestiak eskainiko ditu,  
Kimua taldeko lau dantzariaren  
laguntzagaz. Maiatzaren 21ean,  
Ixabel Agirresarobek helduentzako  
eta umeentzako ipuinak ekarriko  
ditu Mañariara.

Biharamunean, Erraiak doku-  
mentala eskainiko dute liburutegi  
zaharrean. Ekain Martinez de Li-  
zarduy irakasleak eta Arteman Ko-  
munikazioak lankidetzan eginda-  
ko dokumental honek irrintziagaz  
zerikusi zuzena duten pertsonen  
testigantzak jasotzen ditu Euskal  
Herri osoan zehar.

Azkenik, aurtengo Aste Kultu-  
rala maiatzaren 23ko azokagaz  
amaituko dute.

## Otxandioko Udalak baheketa masiboa egiteko aukera aztertu dezan eskatu dio Osasun Sailari

Azken astebetean Covid 19 positibo kasuek nabarmen egin dute gora Otxandion



## OTXANDIO • J.D.

COVID positiboek nabarmen gora  
egin dute Otxandion astebetean,  
eta martitzenetik itxialdi perime-  
tralean dago. Egoera horren aurrean,  
herrian baheketa masiboa  
egiteko aukera "sakon aztertze-  
ko" eskatu dio udalak Osasun Sailari,  
bando batean azaldu dutenez.

Horrez gainera, sintomarik txi-  
kiena izanez gero "etxean geratzeko"  
eta "Legutioko anbulatoriora  
deitze" eskatu diete herritarrei.  
Horrez gainera, PCRa egiteko eta  
euren emaitzak jasotzeko zain  
daudenei "etxean geratzeko" eska-  
tu diete. "Neurri hauek betetzen ez  
baditugu, jende gehiago arriskuan  
ipini eta ez dugu egoera bideratu-  
ko", ohartarazi dute.

## Industrialdeko lanak hilabete inguruan amaitzea aurreikusten dute

## MALLABIA • J.D.

Mallabiko Mallabarrena in-  
dustrialdeko lanak aurrera  
doaz apurka-apurka. Errekak  
gainezka egiten duenean,  
pabilioietan kalteak eragiten  
dituela-eta, obrak egiten da-  
biltza. Erreka apur bat desbi-  
deratzeko ubidea prest dago  
jada, eta lan guztiak hilabete  
inguruan amaituko dituzte  
udaleko iturrien arabera.  
URA agentziatik bideratutako  
proiektua oinarri hartuta,  
martxoaren erdian hasi zituzten  
lanak. Azken urteetan sar-  
ritan gertatu izan dira uhol-  
de arazoak industrialdean,  
eta arazo horri konponbidea  
ipintzea da helburua.

## Plan Orokorriari alegazioak egiteko epealdia hasi dute Izurtzan

## IZURTZA • J.D.

Prozesu luze baten ondoren,  
Izurtzan behin behienan  
onartu dute Hiri Antolamen-  
durako Plan Orokorra. Gober-  
nua Taldean (EH Bildu) adleko  
botoekin irten zen aurrera.  
EAJk kontra bozkatu du.


Orain, Hiri Antolamendu  
Orokorrerako Plana publiko  
egin dute eta ekainaren 21era  
arteko epealdia egongo da ale-  
gazioak jartzeko. Txostena uda-  
letxean edo eta [www.izurtza.eus](http://www.izurtza.eus)  
webgunean aurkitu daiteke.  
Epealdi hau amaitzean, aurkez-  
tu diren alegazioei erantzungo  
diete eta ondoren behin betiko  
onartu ahal izango da Izurtzako  
Plan Orokorra

**DURANGALDEAN ESTETIKAREKIN,**  
ZERIKUSIA DUEN **NEGOZIORIK BADUZU,**  
**JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON**

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian

# Plateruenetik euskara zelan sustatu hausnartzeko saio irekia, domekan

'Plateruena ta gero zer?' dinamikaren bigarren saioa domekan izango da, 10:30ean



Aurreko lan saioetariko argazki bat.

**DURANGO** • A.M.

'Plateruena ta gero zer?' herri dinamikak proposaturiko bigarren saio irekia domekan egingo da. Euskarari buruzko lan saioa izango da eta Plateruenetik euskara zelan sustatu eta euskara eta kultur aniztasuna euskararen sustapenagaz zelan uztartu hausnartzeko dute bertan. Aurretik, kulturari buruzko saioa egin dute, eta maiatzaren 9an parte hartze prozesuei buruz gogoeta egingo dute. Domekako saioa 10:30ean izango da, Zabalarran.

## Udalaren galdetegia

Bestalde, Durangoko Udalak Plateruenaren etorkizunari buruzko ekarpenak jasotzeko, webgune bat ipini du martxan. <https://labur.eus/iEhAo> helbidean bete daiteke galdetegia, maiatzaren 9ra arte.

## Politikan

Jesica Ruiz  
PSE-EE



## Durangoko Martxantera

Joan den igandean omenaldia egin zieten martxantereia Andra Marian. Badakigu Durangon hainbat martxantera egon zirela, baina Boniren pertsonan zentratu zen, batez ere, bera izan baitzen azkena. Bonik 1993. urtean jaso zuen durangar bezala jaso daitekeen omenaldirik beroena: San Faustotako txupinera izatea.

Bere semearekin hitz egin, esan zigun Boni 8 urterekin hasi zela tomateak saltzen tren geltokian eta 11 urterekin Andra Marian ezarri zuela bere "egoitza". Bertan egon zen 82 urte bete arte. Egutero, uda zein negua izan, hotz zein bero egin, bera hor zegoen, kexatu gabe. Zelako bizi gogorra!

## Beti hauxe galdetzen genion: zenbat gozoki har ditzakegu daukagun diruarekin?

Beti gogoratuko dut nola hurbiltzen ginen bere mahaira handik pasatzen ginen bakoitzean, geneuzkan pezeta guztiak bertan gastatzeko. Beti hauxe galdetzen genion: zenbat gozoki har ditzakegu daukagun diruarekin?

2005. urtean utzi zuen postua, eta berarekin gure haurtzaroren zati bat joan zitzaigun. Zelako pena ematen zigun handik pasatu eta inor ez egoteak! Bizia ematen zigun durangarroi, eta bizia ematen zion Durangori.

Zenbat Boni egon ziren? Zenbat emakume egon ziren isil-isilik lanean euren familiak aurrera ateratzeko?

Orain, handik pasatzen garen bakoitzean, urteetan atzera egin eta gure gazteei azalduko diegu nortzuk izan ziren martxantera eta zergaitik ez ditugun ahaztu behar.

## Durungaldea asteen

### Iaz 496 gaztek parte hartu zuten Gaztedi Durungaldea programaren ekintzetan

**Durungaldea** | Bizkaiko Foru Aldundiak, Durungaldeko Mankomunitateak eta udalek iazko Gaztedi Durungaldea programaren balantze positiboa egin dute. Eurek azaldu dutenez, iaz 496 gaztek parte hartu zuten, gazteen eskubideak bermatzea eta norberaren autonomiarako gaitasuna eta komunitatean bere parte-hartzea handitzea helburu duen programan.

### Equo alderdiak Atxarteko harrobia leheneratzeko eskatu du

**Abadiño** | Equo alderdiak Atxarteko harrobia leheneratzeko eskatu die Jaurlaritzari eta Abadiño Udalari. Alderdi berdearen berbetan, gunea "lehenbailehen" berreskuratu behar da, duen "balio paisajistiko eta natural handiko leku batean dagoelako eta instituzioek ahaztu egin dutelako".

### Elorriko Udalak zahartze aktiboa bultzatzeko programa bat antolatu du

**Elorrio** | Elorriko Udalak hainbat aisialdi jarduerak osasungarri antolatu du herriko adinekoentzat. Udaletik azaldu dutenez, programak hiru jarduerak izango ditu: ibilaldi naturalak, jarduerak parke bio-osasungarrietan eta ibilaldiak makilekin (nordic walking). Apirilaren 28tik maiatzaren 23ra eguazteneko batuko dira programan parte hartu gura duten nagusiak, 11:00etatik 12:30era.



### Parkour eta Kalistenia ikastaroak antolatu dituzte Durangon, maiatzetik aurrera

**Durango** | Maiatzaren 8an hiru orduko parkour ikastaroa egongo da Ibaizabal parkean. Eta ekainaren 5ean, hiru orduko kalistenia saioa. Ikastarook Durangoko Udalak antolatu ditu.

Ikastarook 16 urtetik gorako gazteentzat bideratuta egongo direla jakinarazi du udalak. Txanda bi egongo dira. Lehenengoa esperientziarik ez duten pertsonen zuzenduta egongo da. Bigarrena, ariketekin hasita daudenentzat. Ikastaroetan 24 herritarrek parte hartu ahaliko dute, gehienez. Ikastaroetan parte hartzeko, derrigorrezkoa izango da izena ematea.

**Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:** Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarateak barne).

**arizmendi**  
ikastola **PRO**

Arizmendi Ikastolaren Lanbide Heziketa

## ATE IREKIAK ONLINE



943 77 20 25 • [www.arizmendipro.eus/eu/ate-irekiak/](http://www.arizmendipro.eus/eu/ate-irekiak/) • [arizmendi@arizmendi.eus](mailto:arizmendi@arizmendi.eus)

## Zure Lanerako Bidea

### Maiatzak 4

- GIZARTE ETA KIROL ANIMAZIOAREN IRAKASKUNTZA
- MIKROINFORMATIKA

18:00etan

### Maiatzak 5











- ERIZAINZAKO ZAINZA OSAGARRIAK
- OSASUN LARRIALDIAK

18:00etan



# SUDOKUA

Kokatu beheko irudiak lauki zurietan.






# DIFERENTZIAK

Topatu zazpi diferentziak.



# ESAERA ZAHARRA

Bete laukiak dagokien letrekin. Behean daukazun alfabetoari jarraitu.



**A B D E F G H I**



**J K L M N Ñ O P**



**R S T U X Y Z**



# BERDINAK TOPATU

¡Denda bi hauetan mota berdinekoak diren hiru arrain daude. Zeintzuk?



# BIKIAK

Beheko arrain-hezur hauetatik guztietatik bi berdinak dira. Zeintzuk?





## 'Antonia'

ANTZERKIA DURANGO :: Apirilak 24

### Memorian zehar eginiko bidaia Ekoma Teatroren eskutik

Zer gertatzen zaio memoria galtzen duen pertsonari? Eta herri bati? Memoria identitatea da? Idazle baten garuneko ebaki baten bitartez, bere istorioa, sortzen dituen pertsonaia, ezagutu genezake. Hori du

abiapuntu *Antonia* obrak: bidaia bat, idazlearen oroitzapenen artetik, haren iraganetik eta orainetik, errealtatetik eta fikziotik. Ekoma Teatro & Javier Liñeraren eskutik, 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

### Apirilaren 23an

**BERRIZ antzerkia**  
'Unico' (Teatro Paraiso),  
17:00etan, Berrizko Kultur  
Etxean.

**DURANGO bakarrizketa**  
**Bakarkarizketak**,  
19:30etan, San Agustin  
kulturgunean. Euskal  
Herrian Euskarazek  
antolatuta.

**IURRETA ipuinak**  
**Maite Franco ipuin**  
**kontalaria**, 17:00etan,  
Herri Bibliotekan. 3tik  
5 urtera arteko umeei  
zuzenduta (lagunduta joan  
behar dute). Bigarren saio  
bat, 17:45etan, sei urtetik  
gorako neskato-mutikoei  
zuzenduta. Lekua hartzeko:  
94 681 27 26 telefonora  
deituz, whatsapp bidaliz  
688 86 37 36 telefonora  
edo [biblioteka@iurreta.eus](mailto:biblioteka@iurreta.eus)  
posta elektronikora idatziz.

**IURRETA narrazioa**  
**Helduentzako ahozko**  
**narrazioa: 'El Quijote,**  
**400 y pico' (Pablo Albo-**  
**Asturias)**, 19:00etan,  
Herri Bibliotekan. Lekua  
hartzeko: 94 681 27  
26 telefonora deituz,  
whatsapp bidaliz 688  
86 37 36 telefonora edo  
[biblioteka@iurreta.eus](mailto:biblioteka@iurreta.eus)  
posta elektronikora idatziz.

**ZORNOTZA antzerkia**  
'Porno vs Afrodita (Edo  
I love #gorkaurbizu)  
(Benetan Be)', 19:00etan,  
Zornotza Aretoan.

### Apirilaren 24an

**ZALDIBAR bertsoak**  
**Durungaldea**  
**uztabarritzen: Leire**  
**Vargas, Ander Elorriaga,**  
**Unai Iturriaga +**  
**Jone Uria**. 18:30etan,  
Gaztetxean. Gai-jartzailea:  
Ainhoa Urien.

**ZORNOTZA musika**  
'Herriaren doinuak'  
(Zornotzako Musika  
Banda), 19:00etan,  
Zornotza Aretoan.

### Apirilaren 25ean

**DURANGO lan saioak**  
**Plateruena eta gero zer?**  
**lan saio monografikoak:**  
'Zelan sustatu euskara  
Plateruenetik?', 10:30etan,  
Zabalarra eskolan.

**DURANGO narrazioa**  
**Hitez eta Ahotsez:**  
**'MAITASUNAREN**  
**MATERIA(LAK)' (Uribarri**  
**Atxotegi eta Mireia**  
**Delgado)**, 12:00etan, San  
Agustin kulturgunean. Tokia  
hartzeko bibliotekan edo  
94 603 00 41 telefonoan.

**ELORRIO ikuskizuna**  
'Liluragarria' (Ene  
Kantak), 16:00etan,  
Arriola antzokian.

**ZALDIBAR dokumentala**  
'Bideak', 18:30etan,  
Liburutegi Zaharrean.

### Apirilaren 29an

**DURANGO ikuskizuna**  
'Hnuy Illa' (Kukai dantza  
taldea), 19:00etan, San  
Agustin kulturgunean.

### Apirilaren 30ean

**DURANGO ikuskizuna**  
'Hnuy Illa' (Kukai dantza  
taldea), 19:00etan, San  
Agustin kulturgunean.

**ELORRIO antzerkia**  
'Dead' (Lasala),  
19:00etan, Arriola  
antzokian.

**IURRETA bakarrizketa**  
'Euskal Herritik kanpo'  
(Mikel Bermejo),  
19:00etan, Ibarretxe kultur  
etxean.

**ZORNOTZA bertsoak**  
**Durungaldea**  
**uztabarritzen: Alain**  
**Barañano, Beñat**  
**Alonso, Bittor Altube,**  
**Irene Basagoiti+Iruri**  
**Altzerreka**. 19:00etan,  
Etxanoko frontoian.  
Gai-jartzailea: Ander  
Gerrikaetxebarria.

### Maiatzaren 9ra bitartean

**DURANGO erakusketa**  
'Abstrakzio poetikoa'  
(Javier Urquijoren lanak).  
Arte eta Historia Musean.

ANBOTOko agendan ezer iragarri  
gura baduzu, idatzi [agenda@anboto.org](mailto:agenda@anboto.org) helbidera edo  
deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

## Zinema

:: **Abadiño**  
ERROTA  
KULTUR ETXEA

• **Oin handiren semea**  
domeka 25: 17:00

• **Península**  
barikua 23 19:00  
zapateria 24: 19:15  
domeka 25: 19:15  
astelehena 26: 19:15  
martitzena 27: 19:00  
eguztana 28 19:00

:: **Berriz**  
KULTUR ETXEA

• **Nomadland**  
barikua 23: 19:30  
domeka 25: 19:00

• **Natura bizia**  
zapateria 24: 17:30 (euskaraz) /17:30  
(gaztelaniaz)  
domeka 25: 17:30 (euskaraz) /17:30  
(gaztelaniaz)  
astelehena 26: 17:30 (euskaraz)  
/17:30 (gaztelaniaz)

:: **Durango**  
ZUGAZA

• **Bajo las estrellas de**  
**París**

barikua 23 19:30  
zapateria 24: 19:30  
domeka 25: 19:30  
astelehena 26: 17:30/19:30  
martitzena 27: 19:00  
eguztana 28 19:00


• **El horizonte**  
barikua 23 19:30  
zapateria 24: 19:30  
domeka 25: 19:30  
astelehena 26: 19:30  
martitzena 27: 19:00  
eguztana 28 19:00

:: **Elorrio**  
ARRIOLA

• **Dardara**  
arikua 23 19:00  
zapateria 24: 19:00

• **El agente topo**  
domeka 25: 19:00  
astelehena 26: 19:00

• **Kranston ikastetxea:**  
**munstroen eskola**  
domeka 25: 16:00



:: **Zornotza**  
ARETOA

• **Dardara**  
domeka 25: 19:00  
astelehena 26: 19:00

• **Tu mourras á 20 ans**  
martitzena 27: 19:00

# “Izurriak lehenengo pausoak ematen harrapatu gintuen, baina ezin ginen geldi geratu”

Zornotzako Bandak eta Blanco y en botella taldeak 'Herriaren doinuak' emanaldiaren saio bikoitza eskainiko dute asteburuan



**Aritz Labrador**

Zornotzako Musika Bandako zuzendaria

ZORNOTZA | 1997

**MUSIKA • ARITZ MALDONADO**

**Gaztea izan arren, Aritz Labradorrek Zornotzako Musika Bandaren berpizkundea gidatu du azken urteetan. 43 urtean desagertuta egon eta gero, 2019an hasi zen berriro lehenengo pausoak ematen. 'Herriaren doinuak' emanaldiaren saio bi eskainiko dituzte asteburu honetan, 'Arteen doinuak' zikloaren barruan. Blanco y en botella talde zornotzarragaz batera bidaia bat eskainiko dute rock-aren klasikoz eta talde zornotzarraren zazpi abesti jota. Pandemiak Bandaren birsortzea baldintzatu duen arren, ez du amatatuugarria.**

**Gatxa izan da rock talde baten abestiak moldatzea?**

Orokorrean ez da lan erraza izan. Kontuan hartu profesionalak ez garen musika bandek ezin dugula entseatu. Hasieran, iazko programarako prestatu genuen, baina pandemiaren ondorioz bertan behera geratu zen. Hala ere, ez zuen zentzurik egindako lana ez aprobeztatzea. Rock sinfonikoa egingo dugu. Lehenengo, rock klasikora egingo dugu bidaia, eta Queen-en eta Rolling Stones-en abesti bana joko dugu. Blanco y en botella taldearen zazpi abesti moldatu ditugu. Esperientzia polita izango da. Nik uste dut proposamena bera interesgarria izango dela, herriko talde bi elkartzeko gara eta.

Ez da erraza izan, bandaren entseguak Internet bidez egin behar

izan ditugulako, eta taldeagaz batera ere ezin izan dugu entseatu. Pertsonalki ere lan handia izan da Blanco y en botella taldearen abestiak aztertu eta konponketak proposatzea. Zapatuko kontzertuaren aurretik entseatu dugu, eta baita domekakoaren aurretik ere. Gogorra izango da, ordu asko izango direlako jotzen, eta nekatu egingo garelako, baina gaur egun ez dago beste aukerarik. Musika Banden Federaziotik [lehendakaria da Labrador] ere bagabiltza presioa egiten debeku hori altxatzeko.

**Saio bietarako sarrerak salduta daude.**

Hile eta erdi lehenagotik, gainera. Gogoia dago eta ikusten da. 'Zinemaren doinuak' egin genuenean

emanaldi bakarra egin genuen, eta segituan bete zen. Egungo baldintzekin oso jende gutxi sartzen da aretoetan. Gerora, saio bi egiten hasi ginen, eta horiek ere bete egin dira. Ikusmina dago, baina kontzertu masibo bat ematea da nik benetan gura dudana; banda herriari benetan aurkezteko gogoia dut. Hau ere rock sinfoniko kontzertu kuriosoa izango da, Queen eta Rolling Stonesen kantekin, eta amaierarako prestatu dugun propinatxoagaz. Banda bera eza-gutzeko aukera ona izango da. Horren gakoetariko bat bandak eskaintzen duen malgutasuna da. Bandak kaleko musika eta txarangaren errepertorioa egin ditzake, baina baita bestelako gauza batzuk

ere. Getxoko bandak, adibidez, Sorotan Beleren errepertorioa joko du, Gorka Sarriegi abeslariagaz.

**'Arteen doinuak'-en herriko sortzaileen arteko interdiziplina planteatzen da.**

Gauza bi sortzen dira hemen. Alde batetik, gogoia nuen herriagaz beste modu batera konektatzeko, aurreko programa zapuztu zelako. Bestalde, sortzaileak batzeko helburua zegoen. Momentu gatzak pasatu ditugu eta sortzaileen baliokidea agerian geratu da pandemia sasoiaren, hau eramangarriago egingen zelan lagundu duten ikusita. Herrian bertan bilkura hori sortu gura nuen, eta aukera interesgarria iruditzen zait, gainera, herriaren bandaren atek zabalik daudela,

**Bandaren atek zabalik daudela erakutsi gura dugu ekitaldi sorta honeguz**

proposamen berrietarako. Taldekide kopuruaren aldetik ere pozik gaude, baina instrumentu gehiago ere sartu daitezke. Valentziako banda asko, adibidez, ehundik gora lagunek osatzen dituzte.

**Banda lehenengo pausoak ematen harrapatu ditu izurriak. Asko baldintzatu du ibilbidea?**

Egia da hasiberri harrapatu gaituela, eta ez da erraza izan. Bide alternatiboak bilatu behar izan ditugu, baina ezin genuen albo batera utzi egindako lana. Banda 2019ko ekainaren 15ean aurkeztu genuen, eta oso harrera ona izan genuen. Ostean eginiko ekitaldiek ere harrera ona eduki zuten. Iazko martxoan 'Munduarekin konektatzen' saioa egin behar genuenean bertan behera geratu zen pandemiagaitik, baina ez gara geldirik egon; beste era batera, baina martxan jarraitu dugu. Internet bidezko entseguekin edo bestelako kontuekin. Hileko zerbait egitea planteatu genuen: konferentziak, tailerrak... Ez da urterik onena, baina gu ez gara geldi geratu.

Bulegorako zigiluak  
Fotolitoak

**Betikoak**  
flexografía

946 202 241

Bixente Kapanaga, 9  
48215 IURRETA

**ALDEKOA-OTALORA**  
iturgintza

**BEROKUNTZA – AIREA – GASA**  
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiaurre, 8 IURRETA  
946 202 768

Arzubia 10 B industrialdea, 13-14 pabiloiak ABADIÑO  
944 071 791 - 692 859 779

**MAKALLAU**  
saltsan®

**saltsan®**  
KONFIANTZAN

MAKALLAU SALTSANen bakailaorik onena eta osagai guztiak eskaintzen dizkizugu zure lapikoak arrakasta handia izan dezan: piper txorizeroa, baratxuri gorria, kalitate handiko olio eta.

Bakailao koinatua ere aurkituko duzu, mota guztietan: pil-pil, bizkaitarra, ajoarrieroa, kroketak, bakailaoz betetako piperrak, etab.

Eta ez galdu Nafarroako kalitate-labeldun kontserbako produktuak: Zainzuriak, orburuak, piperrak, etab.

Enkarguak egiteko edo informaziorako, telefonoz edo whatsapp bidez gugaz kontaktuan jarri: 688 773 205 / 688 734 329



# Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

## Batu Anbotoko whatsapp taldera



**Bidali alta**  
**688 635 041**  
**telefono zenbakira**

**\* Izan zaitez berriemaile ere.**  
**Bidali zure argazki eta bideoak**

 **anboto**

# "Polita da gai baten bueltan bakoitzak zer kontatuko lukeen konpartitzea eta elkarrekin josiz zerbait berria sortzea"

Domekan, apirilaren 25ean, 12:00etan, San Agustinen 'Maitasunaren materia(lak)' eskainiko dute Hitzez eta Ahotsez literatur ekimenaren barruan



Mireia Delgado eta Urribarri Atxotegi.

gehitu dute. "Oso pozik gaude emaitzagaz, eta azkena ez izatea espero dugu". Ez dute baztertzeko emanaldi gehiago egiteko aukera, are gehiago, emanaldi gehiago izatea gustatuko litzaiekeela esan dute.

**Mugimendua eta ahotsa uztartuko dituen ekitaldia izango da 'Maitasun materia(lak)'**

Maitasunaren materia(lak) emanaldia domekan izango da, apirilak 25, 12:00etan, San Agustín kulturgunean. Aforoa mugatua izango denez, erreserbak bibliotekan edo 94 603 00 41era deituta eskatzeko esan dute antolatzailerak. "Zer ez da maitasunaren material? Guk errezeta bat egin dugu, baina ezagutu ahal izateko San Agustinerara etorri behar da", gonbidatu dituzte herritarrek domekako ekitaldira.

## LITERATURA • ARITZ MALDONADO

Iazko Hitzez eta Ahotsez bertan behera geratu eta gero, garai berrietara egokituta izaten ari da aurtengo edizioa. Asteburu honetan, narrazioa eta mugimendua uztartzen dituen *Maitasunaren materia(lak)* ikuskitzuna aurkeztuko dute Urribarri

Atxotegi eta Mireia Delgado durangarrek. "Ikusleak gorputz bi ikusiko ditu eszenan, mugimendua eta ahotsa baliatuz maitasunaren inguruan hausnartzen eta jolasten", azaldu dute protagonistek. Aurretik elkar ezagutzen zuten arren, emanaldi hau sortzeko bera-

**Hitzez eta Ahotsez literatur ekitaldiko irakurraldia maiatzaren 7an egingo dute**

riaz batu dira. "Lehenengo aldia da elkarregaz zerbait sortzen dugula. Polita da gai baten bueltan bakoitzak zer kontatuko lukeen konpartitzea eta plazaratzeko modua elkarregaz jostea berria den zerbait sortuz. Bat gehi bat ez da bi", azaldu dute, pozik. Prozesuagaz ere pozik geratu direla

## Irakurraldia maiatzean

Bestalde, Hitzez eta Ahotsez literatur ekimenaren ekitaldi nagusia izan ohi den irakurraldia maiatzaren 7an egingo da aurtan, San Agustín kulturgunean hau ere.

## Gai librean

### Ilarak

Lurrera begiratzean ohartu da haizea altxa dela, aireak darama saltoka eta bidean zirkuluka maskara urdinkara bat. Han beste bat. Ikaraz bezala behatu du zerua, ez baitu euririk nahi. Barrera ere busten zaio langarra hasteaz bat, eta umeltasunak tantaka egiten du habia bere baitan halako egunetan. Itsaso bat bezain urdina irudikatzen du malko guztien almazena.

Zain dago. Bart gauean Netflixen due-la gutxi estreinatuta duten Worn Stories seriearen azken atalaz aritu dira gustuko duen Twitch kanalean, denek azaldu dute haien bizitzako jantzi berezia zein den. Berak ere badu kamiseta gorri bat, logotipo handi bat daukana paparrean, seguru sentiarazten duena. Eta sexy. Gaur bezala. Zain dela egin du selfie bat, eskua gora, plano pikatu lirain baten bi-



Libe Mimenza Castillo  
Kazetaria

**Zer kontatuko duen erabaki zain dago. Ez daki. Eguerdia da eta batera agortzear dauka, berriz**

**Zain dela egin du selfie bat, eskua gora, plano pikatu lirain baten bila. Erreakzioak nahi ditu**

la. Erreakzioak nahi ditu. Instagrameko txat leihoetan aktibatzen diren jakinarazpen gorrien segidak berotzen du. Baina zain dago. Berak jaso nahi duen mezuaren zain. Bitartean Tik Tok ireki du. Bada challenge bat aste honetan, bere lagun guztiek egin dute dagoeneko: pailazo filtro bat jartzea da erronka eta gisa horretara norbere bizi erabaki lotsa-

garriak kontatzea edo pailazokeria intimo absurdoren baten berri ematea. Zer kontatuko duen erabaki zain dago. Ez daki. Eguerdia da eta batera agortzear dauka, berriz. Mezu bat pantailan: — Bazatoz? Erantzuna idatzi du arrapaladan: — Laster (eta bihotz hegalaria bat gehitu dio alboan). Ea non karga dezakeen al-bait arinen. Zain dago.

Wasim da bere izena. 16 urte ditu. Sirian jaio zen, baina batzuetan ez daki nongoa den. Hiru ordu daramatza ilaran. Kara Tepen, Lesbosen, errefuxiatuen esparruan. Zaporeak elkarrekin Euskal Herrian bildutako esnea eta fruta jaso zain. Ia bizi osoa darama zain.

# HAU EZ DA NIRETZAT

Beste guztiontzat den websaila.



APIRILAREN 16TIK  
AURRERA  
anboto.org  
WEBGUNEAN

**ttap**

Irakurri, ukitu,  
ikus, entzun.

**DOAN**  
Euskarazko aldizkari digitala, deskargatu astero zure  
mugikor edo tabletan.

Hemendik ere deskarga dezakezu: **ttap.eus**

**DESKARGATU**  
Play Store-n

**DESKARGATU**  
APP Store-n



Instalatu orain!

# "Zenbat eta gehiago jokatu, orduan eta hobeto elkar hartzen dugu"

Bizkaiko pala txapelketako hirugarren mailan bikote misto bakarra dabil jokatzen, Ane eta Arkaitz Diez neba-arrebek osatutakoa. Oraingoz, final-laurdenetara heldu dira

**PALA • JOSEBA DERTEANO**

**Pilotazaleak dira, frontoia euren bigarren etxea da eta sarritan entrenatu izan dira elkarregaz. Beraz, zergaitik ez kantxan bikotea osatu? Bizkaiko pala txapelketan elkarrekin jokatzen ari dira Arkaitz Diez (Atxondo, 1995) eta Ane Diez (Atxondo, 2000) neba-arrebak. Hirugarren mailan jokatzen duten bikote misto bakarra da.**

**Orain arte egindako bideagaz gustura zaudete?**

**Arkaitz Diez:** Ligaxkan hamar partidutik zortzi irabazita final-laurdenetara sailkatu gara. Orain Lekeitioko bikote baten aurka jokatzen gabilta txartela finalerdietarako. Joaneko neurketa 25-13 galdu genuen, eta bihar jokatuko dugu itzuliko partidua, Lekeition.

**Posible ikusten duzue kanporaketari buelta ematea?**

**A.D.:** Besteek asko jokatzen dute, baina esperantza ez da sekula ere galdu behar.

**Ane Diez:** Gu geurea ematen saiatuko gara eta ea zer gertatzen den.

**Bikote misto asko dabilta txapelketan?**

**A.D.:** Hirugarren mailan gu bakarrik.

**Ane D.:** Beste mailetan emakumeen bat badabilela pentsatzen dut, baina, horixe, gutxi gara, banakaren bat. Batzuk apur bat harritu egiten dira ia denak gizonetzkoak diren txapelketa batean emakume bat jokatzen ikusten dutenean. Atipikoa delako.

**Aspalditik jokatzen duzue bikote moduan elkarregaz?**

**A. D.:** Iaz jokatu genuen lehenengoz, Bizkaiko Trinkete Txapelketan.

**Ane D.:** Baina frontoi luzean hauxe da aurreneko aldia.

**Zelan erabaki zenuten bikotea osatu eta txapelketetara aurkeztea?**

**A. D.:** Askotan jokatu izan dugu elkarregaz, Apatako frontoian.

**Ane D.:** Nik Basauriko klubagaz jokatzen nuen. Ez neukan nogaz jokatu eta Basauriko klubean beste neska bat egoera berdinean zegoen. Beraz, biok batera jokatzen hasi ginen. Baina Basauriraino joan beharra beti... Neba Iurretako Olaburu klubean zebilen eta orain ni ere han nabil. Hango entrenatzaile Josetxu Areitiok txapelketetara elkarregaz aurkeztera animatu gintuen eta probatzea erabaki genuen.

**A.D.:** Iurretan entrenatzen gara sarritan, eta Josetxuk beti lagundu izan digu.

**Bikote moduan hobetu ahal izateko, garrantzitsua da gure artean dugun komunikazioa**

ANE DIEZ

**Bikote moduan zelan konpontzen zarete?**

**A.D.:** Ondo. Elkarregaz zenbat eta partidu gehiago jokatu, orduan eta hobeto elkar hartzen dugu.

**Ane D.:** Bikote moduan hobetzeko, garrantzitsua da komunikazioa. Batak besteari garbi esatea zertan hobetu behar duen.

**A. D.:** Guretzat erraza da. Konfian-



**Arkaitz eta Ane Diez Azpitarte**

**Pala jokalariek  
ATXONDO**

tza handia dugu gauzak elkarri esateko. Azkenean, hobby moduan hartzen dugun kirola da eta ondo pasatzen ahalegintzen gara. Ez gara haserretzen.

**Zelan joan zen iaz Bizkaiko trinketeko esperientzia?**

**A.D.:** Oso ondo. Irabazi egin genuen.

**Ane D.:** Egia esanda, txapelketa irabaztea sorpresa izan zen.

**A. D.:** Gutxi entrenatuta joan ginen eta ez geneukan esperantza berezirik, baina partidu bat irabazi, hurrengo ere bai... Apurka kanporaketak gaintzen joan ginen eta, azkenean, txapela etxera!

**Ane, zu buruz buruko Bizkaiko trinkete txapelketan ere bazabiltza. Zelan doa txapelketa?**

**A.D.:** Oraingoz, ondo doa. Bariku

arratsaldean finalerdia jokatuko dut. Lehenengoz heldu naiz hain

**Iaz Bizkaiko Trinkete txapelketa irabaztea sorpresa izan zen**

ARKAITZ DIEZ

urrun. Ez da ondoen nabilen espezialitatea, baina gogotsu nago.

**Frontoi luzea ala trinketea, zer duzue gurago?**

**Ane D.:** Nik frontoi luzea. Trinketeak urduri jartzen nau. Pilotak jo egingo nauen sentazio hori izaten dut.

**A.D.:** Niri berdin dit. Bietan gustura jokatzen dut.

**Nor da aurrelaria eta nor atzelaria?**

**A.D.:** Frontoi luzean Anek atzelari jokatzen du eta nik aurrelari. Trinketean alderantziz aritzen gara.

**Zergaitik aldaketa hori?**

**A.D.:** Trinketean atzeko jokoa eskumatik jokatzen da eta pilota sareantantz bidaltzea da askotan kontua, ezkerreko aldera. Pilotak sarea ikutzen badu, amaitu da tantoa. Ane ezkertia da eta abantaila du sare ingurua babesteko.

**Arkaitz, zu esku pilotan ere bazabiltza. Zelan doa denboraldia?**

**A.D.:** Denboraldi arraroa doa, baina gustura nabil. Urte batzuk daramatzat Mikel Bereinkuagaz jokatzen, eta ondo konpontzen gara.

**hitz** artekalea 23, durango  
946 810 776  
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

**MIÑAN** 1<sup>er</sup>  
Ametz Arzallus & Ibahima Balde (Susa)

**BIZIA MIN** 2<sup>er</sup>  
Jon Ander Urkiaga (Lucas de Gálibo)

**ARROZ UREZ** 3<sup>er</sup>  
Mikel Antza (Txalaparta)

Eskaerak WhatsApp-ez eskatu ☎ 686 214 964, % Bizum-ez ordaindu eta etxean jaso

A. Urreta podólogo

R.P.S. 214/06

**Adinara Urreta Jainaga**

OINETAKO PATOLOGIAK  
NEURRIRA EGINDAKO PLANTILLAK  
OINETAKO BESTE HAINBAT GAITZ

Herriko gudarien kalea, 10 behea - DURANGO - Tel./Faxa: 946 215 404

## Durango Kirol Taldeak amaiera ipini dio Bizkaiko taldeek Euskadiko Txapelketan zuten lehorteari

Gizonetan, 12 urte ziren Bizkaiko klub bat ez zela podiumera igotzen, eta Durango Kirol Taldeko atletak hirugarren tokian sailkatu ziren joan zen asteburuan, Donostian

### ATLETISMOA • JOSEBA DERTEANO

Joan zen zapatuan, atletismo klubben arteko Euskadiko Txapelketa lehiatu zuten Donostiako Anoeta estadioan. Durango Kirol Taldeak hirugarren amaitu zuen gizonetan, eta bigarren postutik puntu bakarrera geratu zen. Emaidza bikaina da 2013an sortutako klubarentzat, eta lehenengoz igo du podiumera. Gainera, Bizkaiko gizonezko taldeen artean, 12 urte iraun duen lehorte apurto du. Etorkizunera begira, honako hau da beste datu bat itxaropentsu egoteko: Durango Kirol Taldean parte hartu zuten hogeitaretatik hamaseik 19 urtetik behera dituzte.

Eneko Lambarririk bigarren tokian amaitu zuen 400 metroko hesien proba, eta beste hainbeste

egin zuen Aimar Vicentek altuerajauzian. Imanol Aiartzaguena eta Pablo Martinez, ostera, hirugarren tokian sailkatu ziren 400 metroko proban eta pertika-jauzian, hurrenez hurren.

**Bidezabalek laugarren amaitu zuen emakumeetan; Espainiako liga hasiko dute asteburu honetan**

Azkenik, Pablo Martinez de Guereñuk, Asier del Arcok, Imanol Aiartzaguenak eta Eneko Lambarririk osatutako laukoteak zilarrezko domina jantzi zuen erreleboen proban.

### Bidezabal laugarren

Bidezabal atletismo klubak laugarren amaitu zuen emakumeetan. Orain hiru urte podiumera igo zuen, baina aurrean atarian geratu da. Txapelketa honek ez ditu klubeko atletak unerik aproposenean hartu, asteburu honetan Espainiako Lehenengo Mailako Iberdrola Liga hasten dutelako eta hitzordu horri begirako prestakuntzan murgilduta daudelako. Ohorezko Mailaren atzetik, estatuko bigarren kategoriarik garrantzitsuenan dabilta.

Hala ere, azpimarratzeko moduko hainbat emaitza lortu zituzten. Oraintsu, Espainiako 23 urtez azpiko mailan, domina lortu duen Judith Otazuak marka pertsonalik onena lortu zuen 1.500 metroko



Durango Kirol Taldeko gizonak Donostiako podiumean.

proban: 4.29.35. Nerea Anasagastik goitik behera agindu zuen 800 metroko proban, 2.15.26ko denbora eginda. Erreleboetan ere garaipena lortu zuen Judith Otazuak, Nerea Anasagastik, Ainhoa Idoiagak eta Valvanuz Cañizok osatutako lauko-

teak, eta puntu garrantzitsuak batu zituen azken sailkapenari begira.

Ainhoa Colinok, Valvanuz Cañizok eta Julene Bouzok bigarren amaitu zuten euren probetan, eta, Natalia Redondok eta Olatz Egigurenek hirugarren eurenetan.

## Jokaldia

### Hasiera

Ilusioz beterik hasi dut denboraldia, zazpi hilabeteren ondoren. Izan ere, joan den asteburuan nire marka hiru segundoz hobetu nuen, eta Europako txapelketara joateko gutxieneko markatik hurbil gelditu nintzen.

Orain datozen lasterketarako konfiantza handia ematen dit horrek, eta gainera, esan beharra dut, momentu honetan, lortutakoak inoiz baino garrantzi handiagoa duela niretzat. Beti esan ohi didate marka hobetzea asko pozteko arrazoi bat dela, garrantzitsua urtero progresio bat izatea delako. Baina, uste dut orain hasi naizela benetan honen garrantziaz jabetzen. Ezer ez izatetik, zerbait izatera pasatzea bezala izan baita. Azken urtean ez dut aukera askorik izan irteera



June Arbo Sarriugarte  
Atleta

**"Beti esan didate marka hobetzea asko pozteko arrazoi bat dela, garrantzitsua urtero progresio bat izatea delako"**

**"Uste dut orain hasi naizela horren garrantziaz benetan jabetzen; ezer ez izatetik zerbait izatera pasatzea bezala izan da"**

lerroan jartzeko, eta horrek lasterketa bakoitza azkena izango balitz bezala gozatzea eraman nau. Lehenengo, pandemia dela-eta lehiatu gabe egon ginen denbora askoan, eta horren os-

tean lesioen eta hainbat zailtasunen erruz azken hileak ez dira errazak izan. Denbora luzez konpetitu ezinik egoteak eta emaitzak lortzen ez direla ikusteak dudak sortzen ditu, eta egunero entrenatzeko ilusioa mantentzea batzuetan zaila izaten da.

Izan ere, esaten den moduan, "ez dakizu zer daukazu, galtzen duzun arte". Baina, horrelako egoeretatik ere badago zer ikasi. Nik hemendik aurrera emandako pauso bakoitza, txikiena izanda ere, baloratzen hasi nahi dut. Inoiz ez baitakizu noiz izango den emango duzun hurrengo pausoa. Ez da ahaztu behar horrelako poztasun txikietatik lortzen dugula egunerokotasunari aurre egiteko energia dosia. Eta topiko bat dirudien arren, "inoiz ere ez da ahaztu behar nondik gatozen eta nora heldu garen".

**AgroPaper®**  
**NEKAZARITZA**  
**JASANGARRI BATERAKO**  
NEGUTEGIA



**Smurfit Kappa**



**ETXETXO**  
G. INMOBILIARIA  
F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 • DURANGO  
[www.inmoetxetxo.com](http://www.inmoetxetxo.com)



**AMBOTO**  
INMOBILIARIA  
Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO



**ISD** Inmobiliaria del Duranguesado  
Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666  
[www.inmoduranguesado.com](http://www.inmoduranguesado.com)  
inmoduranguesado@gmail.com



**IURRETA**  
**APARTAMENTUA:** Logela, komuna, sukaldea, egongela handia eta eskegitokia. Ganbara. 2 garaje.  
**170.000€ C.E.E=E**



**IURRETA**  
**MASPE:** 126 m2. 4 logela, 2 komun, sukaldea, eta egongela terrazarekin. Ganbara eta garajea. Etxe osoak kanpora ematen du. Eguzkitsua. Ikuspegiak.  
**250.000€ C.E.E=E**



**DURANGO**  
**ASKATASUN ETORBIDEA:** 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Etxe osoak kanpora ematen du. Bizitzera sartzeko moduan.  
**178.000 € C.E.E= G**



**IURRETA**  
**MASPE:** 2 Logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ilogailu berria. Etxe osoak kanpora ematen du.  
**140.000 € C.E.E=E**



**DURANGO**  
**J.M. ALTUNA:** Jesuita zonaldea. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela handiak. Ganbara. Bizitzera sartzeko moduan.  
**215.000 € C.E.E=G**



**DURANGO**  
**SAN INAZIO:** 3 logela, komuna, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Eguzkitsua. Terraza. Etxe osoak kanpora ematen du.  
**226.000€ C.E.E=F**

## // ETXEBIZITZAK SALGAI

**DURANGO:** Txibitena. 4 logela. Pisu zabala. Sukaldea, egongela eta komuna. 2 balkoi. Garajea eta trastelekua

**DURANGO:** Antso estegiz. 3 logela, 2 komun, sukaldea-jangela eta egongela. ganbara.

**DURANGO:** Hegoalde kalea. Adosatua salgai. 4 logela, 4 komun, txokoa, terraza eta lorategia. Ezin hobea.

## ABADIÑO

**ETXEAZPIA KALEA:** Pisu zabala, 3 logela, 2 komun, sukaldea balkoiagaz eta egongela. Ganbara. Garaje itxia aukeran.

## BERRIZ

**ELIZONDO ETXETALDEA:** Pisu guztiz eguzkitsua. Egongela, jangela, sukaldea, 2 komun eta 3 logela. Garaje itxia aukeran.

**BERRIZ:** 3 logela, komuna eta egongela. Ganbara. Eguzkitsua. Merkea.

**ATXONDO:** 2 logela, komuna, sukaldea eskegitokiagaz, despentsa eta egongela.

## //LURSAILAK SALGAI

**DURANGO:** 2.360 m2-ko lursaila. Durangotik oso gertu. Zarratua eta zuhaitzekin. Eskaintza paregabea.

**GAZTELUA:** 10.000 m2-ko lursaila. Nekazaritza-lurra. Leku onean. Egokia.

**IURRETA:** 5 hektarea inguruko lursaila. Abeletxe bat egiteko aukeragaz. Sarbide ona.

## //BASERRIAK ETA TXALETAK SALGAI

**ATXONDO:** AXPE. Baserri ederra salgai. Berrizatzeko. Kokapen izugarria.

**ELORRIO:** Araunas auzoa. Baserri eder bat eraikitze. 10.000 m2. Ikuspegi izugarriak.

**MAÑARIA:** 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160 m2 solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

**MAÑARIA:** Baserria salgai. Herrian bertan. 3.000 m2-ko lursaila. Bizitzera sartzeko moduan. Oso polita.

**ELORRIO:** Aldape auzoa. Baserria, berrizatzeko. 3 hektareako lursaila. Prezioa: 115.000 €

**MENDATA:** Lamikiz auzunea. Bizitza biko baserria. Berrizatzeko. Eguzkitsua. Prezio interesgarria.

**DURANGO:** Adosatu ederra, izkinakoa. Guztiz jantzita. Estreinatze.

## //BULEGOAK ALOKAIUAN

### ABADIÑO

20 m2-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifa barne.

## //GARAJE ITXIAK SALGAI

Durango, garaje itxiak salgai 25.000 €-tik aurrera.

## //LOKALAK ALOKAIUAN

Alde Zaharrea, hainbat tamainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

## //LOKAL INDUSTRIALA SALGAI

**MATIENA:** 460 m2-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

## www.inmoduranguesado.com



**DURANGO**  
92,71 m<sup>2</sup>  
**MARTXOAREN 8KO KALEA:** (antzinatasuna 12 urte) 3 logela, egongela, sukaldea jantzita, eskegitokia eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. 18,30 m2-ko garaje itxia. Ilogailua. Leku onean.  
**315.000 € C.E.E: Bidean**



**IURRETA**  
3 logela  
68,62 m<sup>2</sup>  
**ZUBIAURRE:** 3 logela, egongela, sukalde jantzita eta komuna. Balkoia. Erdia kanpora begira. Ilogailua. Kontserbazio egoera onean. Leku onean. AUKERA.  
**150.000 € C.E.E:E Bidean**



**ELORRIO**  
84,8 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**IBAIONDO:** Egongela, sukalde jantzita, 3 logela, 2 komun eta eskegitokia. Etxe osoak kanpora ematen du. Leku onean kokatua. Egoera onean. Garajea eta 3 m2-ko trastelekua. Bigarren garajea aukeran (15.000 €).  
**225.000 € C.E.E:Bidean**



**BERRIZ**  
79 m<sup>2</sup>  
3 logela  
**MAZAGA:** Egongela, sukalde jantzita, eta komuna. 2 balkoi. Etxe osoak kanpora ematen du. Argitsua. 40 m2-ko ganbara. (etxebizitzaren gainean) Ilogailua. Berrizatzeko. Ezin hobea norbere gustura egokitzeko. Berdegunez inguratuta. Erratzasuna aparkatzeko.  
**124.000 € C.E.E:E**



Logela 1  
45 m<sup>2</sup>  
**TABIRA:** Apartamentua. Egongela, sukalde jantzita, logela, komuna eta eskegitokia. Saloia, sukaldea (amerikarra) jantzita. Ipar-menbaldea. 15 urte baino gutxiagoko antzinatasuna. Garajea.  
**169.000€ C.E.E: Bidean**



**MATIENA**  
3 logela  
85,6 m<sup>2</sup>  
**TRAÑABARREN HIRIBIDEA:** Egongela, sukalde jantzita eta 2 komun. Balkoia. Etxe osoak kanpora ematen du. Ilogailua. Argitsua. Kokapen ona. Bizitzera sartzeko moduan. Garaje partzela eta ganbara (10 m2). ALOKAIUAN, EROSTEOKU AUKERAREKIN.  
**210.000 € C.E.E: E**

## Botikak

**BARIKUA, 23** · 09:00-09:00

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

**GOIRIA, MARI CARMEN** Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ZAPATUA, 24** · 09:00-09:00

**NAVARRO** Artekalea 6 - **DURANGO**

**GOIRIA, MARI CARMEN** Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

**09:00-13:30**

**ETXEBARRIA** Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

**CAMPILLO** Montevideo etorb. 24 - **DURANGO**

**BALENCIAGA** Ezkurd plaza 8 - **DURANGO**

**UNAMUNZAGA** Muruetatorre 2C - **DURANGO**

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - **DURANGO**

**GAZTELUMENDI J.A.** Abasolo 2 - **DURANGO**

**DE DIEGO** Intxaurren 22. - **DURANGO**

**SARRIA** Sasikoa 17, **DURANGO**

**LARRAÑAGA-BALENTZIAGA** Berrio-Otxoa 6 - **ELORRIO**

**FARMAZIA MATIENA** Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

**MELERO, ROSA MARI** San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**GUTIERREZ, IBAN** Txiki Otaegi 3 - **ZORNOTZA**

**09:00-14:00**

**IRIGOIEN** Bixente Kapanaga 3 - **IURRETA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**DOMEKA, 25** · 09:00-09:00

**ETXEBARRIA** Montevideo etorb. 2. - **DURANGO**

**GOIRIA, MARI CARMEN** Sabino Arana 6 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**ASTELEHENA, 26** · 09:00-09:00

**BAZAN DIAZ** Uribarri 5 - **DURANGO**

**MELERO, ROSA MARI** San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**MARTITZENA, 27** · 09:00-09:00

**DE DIEGO** Intxaurren 22. - **DURANGO**

**MELERO, ROSA MARI** San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**IRUARRIZAGA, KARMELE** San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

**EGUAZTENA, 28** 09:00-09:00

**SAGASTIZABAL** Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

**MELERO, ROSA MARI** San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR** Urbitarte poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

**SARASKETA, DIEGO** Luis Urrengoetxea 5 - **ZORNOTZA**

**EGUENA, 29** · 09:00-09:00

**MUGICA ANDRA MARIA** 9 - **DURANGO**

**MELERO, ROSA MARI SAN PEDRO** 31 - **ZORNOTZA**

**09:00-22:00**

**SANCHEZ, MIREN ITZIAR URBITARTE** POLIGONOA, 4 P8 - **ABADIÑO**

## Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AKARTEKO EPEA



**GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA**  
Ermodo, 11 DURANGO / Tel.: 946 201 663  
gozatudurango@gmail.com  
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko, bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Zorionak, **Aratz**, zure 10. urtebetetzean. Mosu handi bat ama, aita, Haizea, Lur, Goku, Boo eta Oreoren partez.



Edozeinek jango leuken gazte oker honek hogeta danak betesku geur. Zorixonak, **Moxo!** Datorren urtien, jesukriston edaderako lehenengo numerue hartubizu asike... Oritxi! Bakizue bias... Putre pare bat desietan daz zuaz juergatara bueltau eta Bizkaia maite zein Gipuzkua maite kantetako; konfliktoik on eztaitten. Asike hoixe, earto bixi eta bakik, 'Ni zurekin ezkondu? Ni zurekin? Jai jai!'



Zorionak Berrizko **Gari Velerdasi** eta Iruñean bizi dan bere izekori, **Erlea Velerdasi**, euren lehenengo eta berrogeigarren urtebetetzean. Besarkada bana lehengusina eta alaba Izaroren, amaren eta amama Maribiren partez.



**Joanes Bijelic Aldekoa-Otalorak** 12 urte bete zituen apirilaren 20an. Zorionak familia osoaren partez!

## Eguraldia

ZAPATUA 🌡️ 24° / 12° ☁️

ASTELEHENA 🌡️ 19° / 10° ☀️

EGUAZTENA 🌡️ 16° / 7° ☁️


DOMEKA 🌡️ 22° / 12° ☀️

MARTITZENA 🌡️ 16° / 7° ☁️

EGUENA 🌡️ 18° / 8° ☁️

## Eskela

**Benedicta Garate**  
**Etxebarria**  
"Handiko Beneri"



Malbabisko, galleta ta txokolate,  
dana borondate.  
Zure umorea eta bizi-poza  
bidelagun izango doguz.

-Milagros-



**clínica dental hartzklinika**  
b. unamunzaga e. etxebarría

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan.  
Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu  
dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }  
Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

## “Valenciako Euskal Etxean hazi nintzen, euskal ohiturez inguratuta”

Itxaso Uzkanga 2007an etorri zen Venezuelatik Zornotzara. Euskal ikonografiagaz kamisetak diseinatzen hasi zen 'Ekin Harriari' izenpean; iaz, Jaialdi dendako lekukoa hartu zuen



**Itxaso Uzkanga Meabe**

Diseinatzaile grafikoa  
Jaialdi denda

VENEZUELA | 1977

**ZORNOTZA** • AITZIBER BASAURI

**Olatz Zugaztik, Afrika Baetak, Joseba Etxebarriak edo Ilaski Serranok. Jende ezagunak jantzi ditu Itxaso Uzkangak sorturiko diseinuak, eta oso eskertuta dago. Hala ere, aitortu du ezagutzen ez duen jendea bere diseinuak jantzita ikusteak egiten diola ilusiorik gehien. "Asko betetzen nau horrek", dio.**

**Euskal kulturagaz eta euskal ohituren babesean hazitakoa zara, Venezuelan.** Bai. Etxean txikitatik edan dugu euskal kulturatik, euskal ohituretatik. Venezuelako Valencia hirian jaio eta hazitakoa naiz. Hango Euskal Etxean hazi nintzen, euskal ohiturez inguratuta. Hango euskal dantzen taldean ibilia naiz eta

Euskal Herriko hainbat tokitako jendea batzen ginenez, leku guztietako jaiak ospatzen genituen. Txikitatik bizi izan dut oso gertutik euskal kultura.

**Venezuelan jaiotako euskalduntzat duzu zeure burua?**

Bai, lotura sendoa dut Euskal Herriagaz. Ama Bediakoa dut eta aita Begoñakoa, Bilbokoa. Venezuelara emigratu behar izan zuten, eta han jaio nintzen. Aitita gudaria izan zen, eta amama eta ama Saturrarango espetxean egon ziren preso. Aitaren aldetik, nire birraitona Begoñako azken alkatea izan zen. Venezuelan nagoenean euskalduna naizela esan dut beti, eta Zornotzan nagoenean, euskal-venezuelarra.

**Zerk ekarri zintuen Durangaldera? Entzun dugu maitasuna izan zela tarteko.**

Egia da zerbait gurutzatu zela, baina betidanik izan dut Euskal Herria gogoan, bertara etortzeko ideia. Argi nuen ez nuela bizi osoa Venezuelan egingo. Hango egoera ez zen onena, eta horrek erabakia hartzeraren ninduen, aurretik hartuta nuen erabakia hartzeraren. Ez

**"Betidanik izan dut Euskal Herria gogoan. Argi nuen ez nuela bizi osoa Venezuelan egingo"**

da erraza. Dena atzean uzten delako, familia ere bai.

**Ekin Harriari markagaz ekin zenion bideari, kamisetak eginez.**

Etxean hasi nintzen nire diseinuekin lanean, 2010ean denda txiki bat zabaldu nuen arte. Joaten naitzen tokietan, arreta eman didan horregaz inspiratu naiz beti: horrela sortu nituen Santimamiñeko koben edo Argiñetako nekropoliaren irudia inprimatuta zuten kamisetak; Gorbeia gurutzeta ere landu nuen zilarrean... Poltsak, bitxiak, eta, beirateria eta lanerako arropak pertsonalizatzea etorri ziren gero, beti enkarguz. 2017an Jeny lankideak eta biok Telarte jantzigintza tailerra zabaldu genuen, pauso bat eman eta brodatuekin hasi ginen.

**Jaialdi dendaren lekukoa hartu zenuen iaz, eta euskal jantzi tradizionalak egiten dituzue. Erronka berria duzue hori?**

Bai, iazko otsailan heldu genion, justu pandemia hasi baino lehen. Ezkontzetarako, jaunartzetarako, jaietarako... lan egiten dugu, batez ere. Bada, pandeamiagaz berrasmatu egin behar izan genuen: udalarentzat maskarak egiten hasi ginen, oinarritzko zerbitzua ematen zuten establezimenduetan banatzeko. Gero, herritarrek etorri ziren, eta jantziatarako oihalekin egindako maskarak eskaintzen hasi ginen, borondatearen truke. Orain, homologatutako oihalekin egiten ditugu enpresentzat. Baga-biltza jantzi batzuk egiten, baina, batez ere, enpresentzat pertsonalizatutako produktuekin dihardugu.

**Zer da eskatu dizuten arraroena?**

Aterkiak edo karpak pertsonalizatu ditugu, eta 4x4 ibilgailu bateko ordeko gurgilaren estalkia. Argazki batez etorri ziren: txakurra oilogorren atzetik. Jaietako kuadrilla-kamiseten enkargu batzuk ere bitxiak dira!

**Diasporatik ere badituzu enkarguak.**

Bai, AEBetatik eta Hego Amerikatik. Lau urtero ospatzen den Boiseko Jaialdira joatekoak ginen iaz, gure jantziekin. Baina pandemiak 2022ra atzeratu du dena. Ia dena ondo doan eta joan gaitezkeen!

**Euskara ikastera animatuko zara?**

Valenciako Euskal Etxean aritu nintzen, baina, egiten nuenez... Etxean askotan esate didate. Aurrera begirako erronka dut.

**Lauhortza**

Bixente Aizpurua Eguren irakaslea/ Jubilatua



**Osakidetza**

Bakunak direla-eta edo honek burutzen duen lana dela-eta, aspaldian, denon ahotan dabil Osakidetza. Suposatzen dut bertan lan egiten dutenek iritzi propioa izango dutela beraien baliabide eta lan baldintzak kontuan hartuta.

Nik bezero edo paziente lez goaipamenak baino ez ditut. 50 egun egin ditut Gurutzetako Ospitalean eta denbora luze horretan asko izan dira nire logelatik pasa diren profesionalak: zeladoreak, auxiliarrak, erizainak, zirujano plastikoak, urologoak, nutrizionistak, infekzio-koak, fisioak eta garbitzaileak. Ezin ditut ahaztu orain etxera etortzen zaizkidan erizainak.

Denak profesional handiak eta goi mailako prestakuntzarekin. Ez dut aurpegi txarrik ikusi eta beraiek eskaini didaten arreta ordainezina da. Lana maitasunez egiten dutenez bertara joaten garenon beldur eta kezka baretzen edo uxatzen laguntzen digute.

Nahiz eta noizbehinka akatsak izan, inor ez baita perfektua, Euskal Herriko herritarrok pozik eta harro egon gaitezke daukagun Osasun Zerbitzuekin.

Politikariek, aurrekontuak egiterakoan, kontuan izan beharko lukete profesional hauen lana errazteko behar dituzten tresna guztiak beraien eskuetan jartzea: ikertzen jarraitzeko, etengabeko prestakuntza eskaintzeko, makina eta baliabide berrienekin zentro guztiak hornitzeko eta guzti hau burutu ahal izateko langile gehiago kontratatuzko.

Denborarekin, zaindu nauteen aurpegiak eta izenak ahazten joango zaizkit, baina inoiz ez dut ahaztuko jaso dudana pazientezia eta maitasuna.

Eskerrik asko gure osasuna zaintzen ari zaretan guztioi.

## DURANGO KABILDUOSTE



Proiektu berria San Roke auzoan, erdigunetik pauso batera.

Informazioa

**sukia**  
Zure etxean zaude Estás en tu casa

**946 46 20 41**  
[www.sukia.com](http://www.sukia.com)